



Edale bakoitzak bi botela edan ditzake afari batean.

GALLEGO

Sagardoak ez du parerik munduan

“Duela gutxi Ingalaterra bidaiatzen ari garen batek Londres inguruan dagoen sagardo enpresa bat ikustera, baina han egiten den sagardoak ez du gurearen antzik”, esan zuen Jose Maria Irizar, Barkaiztegi sagardotegiko nagusiak.

“Sagardo enpresa horetan 150 milioi litro egiten dira urtean. Sagarrak ez dira oso bereziak, guk sagar harekin gurearen antzeko sagardoa egingo genukeela esango nuke nik, baina teknika oso bereziak erabiltzen dituzte eta produktua oso desberdina da. Bandeja batean hamabi sagardo klase eskaini zizkiguten guri, baina batek ere ez zuen gurearekin antzik. Irakiteko legamiak botatzen dizkiote eta prozesua oso bestelakoa da. Sagardo horiek zail da gurea baino hobekien edo txarragoak diren edo ez juzkatzen. Herrialde hartan jendeak halakoa eskatzen du eta kito”, esan zuen.

Frantzian egiten den sagardoak ere ez du Euskal Herrikoarekin parekotasun erabatekorik eta ahaide hurbilik bilatzekotan Asturias aldera jo behar da.

“Asturiaskoak du, noski, gurearekin parekotasunik nabarmenena, baina honek ere bere nortasuna da. Nik gurea garrantzagoa dela esango nuke eta hangoa mikatzagoa. Hori, dena den, sagarraren gorabeheran dago asko eta azken finen jendearen gustoen arberan, jendeak nahi duena egiten bait du sagardozaleak”, esan zuen Añotako nagusiak.

Euskal Herrian egiten den sagardoa juzkatzerakoan ere, adituek bereizketa dezenteak egiten dituzte, ez dago horretarako adineko esperen ondoan jartzea besterik, baina zientzia horretan ere haurtzaroko esperientziak markatzen dute gustoa eta esperientziak erakusten du kalitatea bereizten.

